# Bitoriano Gandiaga (1928-2001)

## *Pozgarria da egun berrira*

*Pozgarria da egun berrira*
*beste behin iratzartzea*
*eta oraindik ere bizirik*
*naizela konturatzea.*

*Egun on, Jauna, eta eskerrak,*
*hauxe da berriz sortzea*
*eta tratuan berriz izaki-gizakiekin jartzea.*

## *Pasatzen dira hodeiak*

*Pasatzen dira hodeiak,*
*txoriak, gaua, eguna.*
*Pasatzen  gara geu ere.*

*Pasatzen gara ta ez da*
*egundo inon geratzen*
*utzi beharko genukeen*
*eho genuen ehuna.*

## *Maite dut bizitza*

*Maite dut bizitza,*
*maite dut,*
*eta bizipoza opa diot*
*bizitzari.*

*Bizipoza opa diot*
*bizi nazala dasaidan*
*kontzientziari.*

*Bizipoza bizirik*
*dakusdan inguruari.*

*Bizitzaren grazia*
*Bizi duen bizidun*
*orori opa diot*
*bizipoza.*

## *Lurra hartu dut esku barruan*

*Lurra hartu dut esku barruan,*
*eskutada lurra,*
*herriko neure lurra,*
*neure asaben lurra,*
*lurreko neure lurraren*
*lur puska ziurra.*

*Harriaren arreba*
*lurra hartu dut esku barruan,*
*euskaldunen ama lur,*
*uraren kideko lur,*
*suaren sostengu lur*
*zuraren orpoko lurra.*

*Lur hotza, lur beroa;*
*lur hila, lur bizia;*
*lur nabar, lur argia;*
*lur astun, lur arina;*
*lur samin, lur atsegin;*
*lur gogor, lur gozatsu;*
*lur iraindu, lur maite;*
*lur jator samurra.*

*Lurra hartu dut eskuan*
*mun emateko,*
*besarkatzeko,*
*bularrean herstutzeko*
*luzaro.*

*Eta gero,*
*neure burua baino*
*gorago jasoz eskua,*
*burutik behera utzi dut*
*sorbaldaz behera jausten,*
*neure lur guztiz behera,*
*lurrezko bataioaren*
*seinaletan.*